

INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZAKO GRADUA

TITULAZIOKO GAITASUNAK

Orden CIN/351/2009, de 9 de febrero, por la que se establecen los requisitos para la verificación de los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Ingeniero Técnico Industrial. (BOE del 20 de febrero de 2009).

1.G. Industria ingeniartzaren arloko proiektuak, industria elektronikaren eta automatikaren berariazko teknologian, idazteko, sinatzeko eta garatzeko gaitasuna. Proiektu horien helburua, CIN/351/2009 Ministro Aginduaren 5. atalari jarraiki eskuratu beharreko ezagutzen arabera, honako elementu hauek eraikitzea, berritzea, konpontzea, zaintzea, eraistea, fabrikatzea, instalatzea, muntatzea edo ustiatzea da: egiturak, ekipo mekanikoak, instalazio energetikoak, instalazio elektrikoak eta elektronikoak, instalazio industrialak, eta fabrikazio eta automatizazio prozesuak.

2.G. Aurreko epigrafean zehaztutako ingeniartzaren proiektuen helburu diren jarduerak zuzentzeko gaitasuna.

3.G. Metodo eta teoria berriak ikasteko gaitasuna eta egoera berrietara egokitzeko aldakortasuna emango dieten oinarrizko gaien eta gai teknologikoen ezagutza.

4.G. Arazoak ekimenez konpontzeko, erabakiak hartzeko, sormena erabiltzeko, arazoiketa kritikoak egiteko eta industria ingeniartzaren arloko, industria elektronikaren eta automatikaren berariazko teknologian; ezagutzak, trebetasunak eta abileziak komunikatzeko eta transmititzeko gaitasuna.

5.G. Neurketak, kalkuluak, balorazioak, tasazioak, peritazioak, azterketak, txostenak, lanen planak eta antzeko beste lan batzuk egiteko ezagutzak.

6.G. Nahitaez bete beharreko zehaztapenekin, araudiekin eta arauekin lan egiteko gaitasuna.

7.G. Konponbide teknikoaren gizarte eta ingurumen eragina aztertzeke eta baloratzeko gaitasuna.

8.G. Kalitate printzipioak eta metodoak aplikatzeko gaitasuna.

9.G. Antolatzeke eta planifikatzeko gaitasuna, enpresaren eta beste instituzio eta erakunde batzuen arloan.

10.G. Hizkuntza eta diziplina anitzeko ingurune batean lan egiteko gaitasuna.

11. G. Industria ingeniari tekniko lanetan, industria elektronikaren eta automatikaren berariazko teknologian, aritzeko beharrezko legeria aplikatzeko beharrezko ezagutza, ulermena eta gaitasuna.

12.G. Laneko jarrera arduratsua eta ordenatua izatea, eta beti ikasteko prest agertzea, etengabeko prestakuntzak dakarren erronka kontuan hartuta.

13.G. Metodologia zientifikoko estrategiak aplikatzea: egoera gatazkatsuak kualitatiboki nahiz kuantitatiboki aztertu eta hipotesiak eta soluzioak planteatu, industria ingeniartzako ereduak erabiliz, industria elektronikaren eta automatikaren espezialitatean.

14.G. Talde lanean modu eraginkorrean jardutea, gaitasunak eta ezagutzak erabilita, industria ingeniartzan industria elektronikaren eta automatika espezialitatearen esparruan erabakiak hartu ahal izateko.